

euskaldunon istorioak



Amale bere aitarekin hilabete zuenean.



Amale poxpoliñetan antzezten 8 urterekin.



Amale (ezk.) Unión Radio irrastian aurkezle lanetan.



1943-5-23an Madrilen 'Luzear', Amalia, Amale eta, txikiena, Iñaki.

Donostian jaio zen orain dela 100 urte, 1924-02-19an Hondarribia kaleko 23an, Arzelus Toledotar Ander eta Arrieta Zundatar Amaliarengandik. Lau neba-arreben artean lehenengoa izan zen, bere ahizpa Itziar, Ander eta Iñaki nebek jarraitu zioten

Jonan Zinkunegi Arzelusen erreportajea

Amale Arzelus Arrieta. Ehun urteurrena Poxpoliña, antzezlea, esataria, andereñoa, idazlea, ama...

BERE bizitza ulertzeko nahitaezkoa da berak *Nere oroimantan* idatzitakoa: "Aitak, Donostiko Kutxan jasotzen zuten soldata, baña bazituen beste zereginak: E.A.J.ko kidea zan, buruetakoa ere. Euskal irakasketetan jardun zan. Itzaldiak ematen zituen, ni txikitan berritsu lotsagabea nintzan itxuraz, ortaz berak idatzi eta nik esan, ezpaitzaion gogoko jende aurrean itz egitea, naiz eta ziotenez izlari ona izan.

Ander, *Luzear* ezizenez, *El Día* izparringian, *Euskal Orria* zuten bere gain. *Argia* aldizkariako antolatzailea, idazlea eta aldi batean zuzendaria. Antzerki batzuek idatzi zituen, Euskerazaleak eta euskal idazleen biltzarretan arduradunetako izan zan, baita bertsolaritza saioren antolaketetan. Union Radion, lehenengo euskal irratsaioren antolatzailea, Joseba Zubimendirekin batera".

Ikasketak Hiru urte zituela hasi zituen bere ikasketak Donostiako Arantzazuko Ama ikastolan. Zortzi urterekin Aldapetan, Villa Belen ikastetxean jarraitu zituen ikasketak, hemen gaztelaniaz, guda hasi arte.

Ikasle iaioa izan zen, bere notak 10ekoak izaten ziren. Ondo gogoratzen zuen behin izandako atsekabe

handia notable bat jaso zuenean.

Gudarekin, lehendabizi Bilbora eta ondoren Iparraldera ihes egin behar izan zuten, bertan behera gelditu ziren bere ikasketak, bizi guztian horren kezka izan zuen. Iparraldean, ahal izan zuen moduan, orduan frantsesez noski. 1940an Donostiara itzultita, lanean hastea beharrezkoa izan zuen, etxeko handiena zenez, 16 urte zituen eta bere aita espetxean zegoen, ez zuen ikasketak jarraitzerik izan.

POXPOLIÑAK Oso txikitatik, orduko egunkari batean irakurri daitekeenez, 4 urte eta erdirerekin, Donostiako Poxpoliñak taldean aritu zen, berak honek dio *Nere Oroimantan*: "Labordatar Ramón apaizak sortua eta guda arte berak zuzendua. Kursoalean biltzen zuten aur pillak, euzkera, dantzak, abestiak... irakatsiaz. Oso pozik ibiltzen giñan. Antzeztoki polita ere ba zuten, ez txikientzat bakarrik, baita aundientzat ere. Ni gaztetxoa izan arren, oso gogokoak nituen antzerkiak".

Paul Atutxak, *Zer* aldizkarian: "1928ko urtean bere aitak, Amalek lau urte eukezala, aurkeztu eban Donostiko antzoki baten leenengo oguzpenean Ni naiz sudurmotz berritsu bat buruz mintzatu edo ozentzeko".



Amalek, bere senarra izango zen Andoniri bidalitako lehenengo argazkia 1944an.

"1932ko urtean epaillaren 2an, Ander aitak, *Neskamearen marmarrak*, alkarrizketetan aots gozoz mintzatzeko idazten ebazanak, ibili eban Amale ozen alditan, zortzi urte egin-barri euki ebazanetik, Donostiko Irrati Alkartearen ozengailu, bai eta Euskalerrietan egozan irratietan mintzaten. Amale berak, jolas antzeko baten egiten ebazanak".

Urkiagatar Esteban *Lauaxetak* esaten eban: "Euskalerrian ez egonla

etxerik, umetxo au biotzetaraiño sartzen etzanik".

EUSKERAZKO EMAKUME-HIZLARIA 1932an Union Radion 8 urte zituela irratiako lehenengo euskerazko emakume-hizlaria izan zen, 1932-1934ra. Bere oroimenetan honela dio: "... Donostin egin ziran euzkal irratsaioak ditut gogoan, an izaten bai nintzan ni askotan gure aitarekin. Zubimenditar Josebak eta gure aitak erata". "Nik irratsaio aiek gogoan ditut. Aste batean Zubimendi'k eraten zuten eta beste gure aitak. Gure aitak eraten zitunetan, askotan ni izaten nintzan aurkezle. Oso saio atsegiñak ziran euskaldunentzat, ezpaizan orrelakorik orduan". "... Orrela ba, garai polita izan zan neretzat. Gure aitak eta Zubimendi'k lan aundia egin zuten, irratsaio bakoitzean, neretzat berriz jolasa izan zan".

IRUÑEAN Bere Oroimenetan: "Zortzi urte terdi nitun gure aitari 'pleuresia' baten ondorioz, illabetez, aize aldaketa komeni zitzaioala eta Iruñian sendikoak genituz, ara joan giñan. Aita oso ibiltaria zan eta ia egunero Iruña inguruko errietara joaten giñan oñez. Batzuetan, nere izebarekin, Batzokira eta bestetan ikastolara joaten giñan,

Iruñian, ordurako, ikastola ba-zan. An jarduten nintzan aurrai Poxpoliñetan ikasitako abesti eta dantzak irakasten. Benetan xaltxera nintzala aitortu bear det".

GUDA GARAIA "12 urte nitun guda asi zanean. Nere aizpa, Itziar eta ni gure amonaren etxean giñan eta illuntzean osaba etorri zitzaigun eta etxera joan bear genula. Ez naiz oroitzen orduan esan zigun guda asi zala, baña ziurrena, ala izango zan. Au garagarillaren 18an zan noski.

"... Pianoa jotzen ikasten ari nintzen, Narrika kalean Andone Aranbarrirerkin, pianoa jotzen ari giñala, bat batean burrunda ikaragarria izan zan. Laxterka, izututa, etxe barrenen zegoen gela batera joan giñan. Bomba bat izan zan". "... geroztik *sirena* entzuten genunean etxe azpian sartzen giñan. Donostin egon giñan Irailla asiera arte".

"Orduan, Donostitik ateratzeko ordua iritxi zitzaigun, baña aita etzegen gurekin. Bere Alderdi'ko lagunak Zarautz'a joateko esan zula adierazi ziguten. Zarautzen sendia genun eta ara joan giñan. Zarautz'en giñan, aita etzan agertzen eta amari etzioten berririk ematen. Egun batzuek igarota azkenean azaldu zitzaigun! Orduan jakin genun Madrilen izan zala Agirre, Ajuriagerra eta Basterretxearekin Estatutua lortzeko errepublikako gobernuarekin arremantetan. Benetan arrixkutsua izan zan bidai ura".

"Andik aurrera Bilbaorako bidea aitarekin egin genun. Zarautztik Debara; andik Lekeitiora, gero Gernikara eta azkenik, Bilbora iritxi giñan".

"Bilboko egun aiek gogoratzean, besteak beste, sirenaren ota dator kit gogora: Iru motz, bazetozela egazkiñak adierazteko ziran, gero gañean genitula esateko beste bat luzeagoa eta gero alde egin zutenean luze bat".

"... Gertakizun atsegin bat ere izan genun. Alderdiak jai-aldi bat eratu zuten, antzerkiak... e.a., ez naiz gogoratzen zertarako dirua biltzeko. Nik, an, *Neskamearen marmarrak* antzeztu nun azkeneko aldiz". "Orrela zazpi illabete. Etsaiak gañean ziran eta gure gurasoak lau anai-arrebak

euskaldunon istorioak

amarekin alde egin bear genula erabaki zuten. Aita ez, buruetakoa zanez, an gelditu zan gudariek. Andik Santoña aldera joan zan eta han preso jausi zan”.

IPARRALDEAN “Habanan uretaratu giñan, oso gogorra izan zan, batez ere aita Bilbao'n gelditu zalako”.

“Le Havrera eraman ginduzten. Nere oroimenean gelditu zaidan gauza bat: Ogi txuria jan genula! Nola diteke ainbeste gertakizun garrantzitsuen artean ori oroitzea? Baña ainbeste denbora ogi txuririk gabe pasa ta gero... Jarraian berriz Euskalerrira, lenbizi Kanbora, gero Urkurai, Azkain eta Donibanera.

Egoaldeko iru sendi bizi giñan Azkainen: Oñatibia eta Zinkunegitarak ditut gogoan eta gu. Zinkunegitar Joseba eta gure aita aspaldiko lagunak ziran. Biak euskal idazleak eta abertzale sutsuak. Bere alaba Anerekin adiskide egin nintzan eta neretzat gauza aundia izan zan adiskide bat izatea. Ama eta bost senide ziran bertan eta irugarrena Andoni, gero nere senarra izango zana, Lan-nemezan'en bizi zan. Laxter itzuli zan Azkainera eta orduan ezagutu nun nere maitia izango zana, Zinkunegitar Andoni.

Iru urte egin genitun Iparraldean. Geiena Azkainen. Neguan Donibanera joaten giñan. Ni 12 urterekin joan nitzan eta 16 bertan bete nitun”.

BERRIRO DONOSTIAN “1940, emen giñan ba, Donosti'n! Gure aiton-amonaren etxean, Gure izeba bakarrik bizi zan orduan, iru osaba, gure aitarekin Santoñan erori ziran eta batallón de trabajadoresetan zeuden”.

Honeraino Nere oroimenean idatzita utzi ziguna, laburtuta. Aitak Burgosko espetxean jarraitzen zuen, hasieran 2 urte inguru heriotza zigorpean egon ondoren, orain luzarokoa betetzen zegoen. Bere amak eta biok, irakasketa partikularrak ematen zituzten, ama “maestra” zen eta berak euskara eta frantsesa irakasten zituen. Horrela igaro zuten 1943an aita erdi aske utzi zuten arte.

Orduan, aita aske utzi ondoren, 200 kilometrotara atzerriratu zuten, eta Madrilera joan zen, hasieran aita, baina gero ama, Amale eta Iñaki ere. Bertan urte eta erdi inguru egin zituzten. Bulego batean egiten zuen lan.

Bere bizitza, hasieran, lanetik etxera eta jai egunetan gurasoekin zinerara edo ibilalditxoak egitera. Aurrera-



‘Luzear’, Zubimendi eta Amale garaiko egunkari batean.



1952an Amale bere bi seme eta alaba magalean eta ikastolako umeak San Jeronimoko etxe-ikastolan.



1937an Bilbon sendia banandu aurretik egindako argazkia.



1937an Iparraldean Amalia eta 4 seme-alabak.



1994an Euskerazaintzakoekin euskaltzaina izendatu zuten egunean.

go lagun euskaldun batzuek aurkitu zituen eta haiekin bidaiatzen zen inguruetara: Puerta de Hierro eta Escorial, adibidez aipatzen ditu.

1944an, Iparraldean ezagutu zuen Andoni Zinkunegiri, gutuna idatzi zion eta horren ondorioz beren arteko harremanetan, gehien bat, gutunen bidez jarraitu zituzten 1948an Andoni hegoaldera itzuli ahal izan zuten arte.

Donostiara itzuli ondoren, Fides inprentan aritu zen lanean 1948an ezkondu zen arte. Gutunen bidez izan zituzten harremanak, nahiz eta Andoni, urtean behin isilpean Donostian agertzen zen iraileko estropadez baliatuz, Iparraldeko itsasontzi batean etorri eta itsasoan Donostiako batera pasa eta iristen zen.

Amale antzezle lanetan aritu zen, hasieran bere aitaren gidaripean,

gero bera gabe ere. Baita Schola Cantorum koroan abesten eta katekista ere. Mendizalea bizi guztian.

Bere aitak Alderdiko eta Euskadirekiko jardueretan jarraitzen zuen. Horretaz poliziak arduratuta bere bila joan zirenean ihes egin behar izan zuen eta Iparraldean pasa zituen azken 6 urteak, 1949ko abuztuaren 27an hil zen. Alderdiko lehendakari-orde izan zen, baita Euzkadi Irratiko zuzentzailea eta euskarazko irratiaien arduraduna ere. Idazlanak ere egin zituen, *Euzko Deian* etab.

IKASTOLA 1949an, Elvira Zipitriak eskatuta, etxe-ikastola jarri zuen eta horretan aritu zen 1968ra arte. Gero nagusi taldeei euskara irakasten jarraitu zuen. 1949-1964 artean 9 seme alaba egin gintuen eta gure heziketa, bere “ikastola”rekin bateratu behar izan zuen. Beraz, Amalek amatasuna, andereñotza eta etxe-koandretza jarduerak batera egin zituen. Sekula ez zuen hiruretako batera alboan utzi.

IDAZLEA

JONAN ZINKUNEGI ARZELUS

1951-02-12an Donostian jaio zen, ‘Luzear’ren biloba. Delinartzaila eta argazkilaria. Idazlea ez izan arren, bere bi aitonen eta amaren jardueraren bil-dumak landu eta argitaratu ditu.



ERREPRESIOA 1967-1971 tartean, 5 urteotan, bere senarra eta seme bat atxilotuak izan ziren, orduan espetxera senideak ikustera. Amale bakarrik gelditu zen garai bat, bost hilabetez, beste 7 seme-alabekin, 4tik 18 urtera bitartekoak. 1988an urtarillaren 15ean bere iloba Bakartxo Guardia Zibilek erail zuten Erreterian. Geroztik, euskal presoekin harremanak izan zituen luzaroan gutun bidez. Haien aldeko kaleratzeetan izaten zen bere azken hilabete arte.

Politikan beti Sabindarra izan zen, EAJn gero EAn eta azken garaian Ezker Abertzalearen inguruan. Euskerazaintzan eratzaila hasieran eta euskaltzaina 1994tik zendu zen arte.

Arbasoen hizkuntza zaleak, gipuzkera eta euskalkien aldeko elkarteak eratu zuten. Bera izan zen lehendakaria eta gehien saiatu zenetakoa. *Iru-txulo* aldizkarian idatzi ohi zuen, lan-txoak euskararen erabilerari buruz ziren. Katekesia euskeraz ematen zuen, 2006-2007 urteetan behintzat Grosen.

77 urterekin, 2001an ordenagailua erabiltzen ikasi zuen Word, Internet... Orduetik, bere lanak horrela egin zituen. 2015, azkeneko urtea betiko eran hasi zuen, alaitsu, bere azkeneko Donostiako danborrada beti bezala ospatu zuen. Horrela jarraitu zuen bere azken lau hilabeteetarako, ibiltzeko indarrik gabe gelditu zenean gurpil-aulkia erabili behar izan zuen. Hala ere egunero kalera irtetzen jarraitu zuen. 2015ean, irailak 29an, bere azken arratsaldea kalean pasa ondoren, etxeratu zenean, itzali zitzaigun. ●

CLICK:sabinoarana.eus

ATEAK ZABALIK PUERTAS ABIERTAS

LAU HAIZETARA

Erabateko sarbidea gure eduki digitaletara:

artikulu historikoak, argazkiak, agiritegiko dokumentuak, biografiak, ikus-entzunezkoak...

Acceso libre a nuestros contenidos digitales:

artículos históricos, fotografías, documentos de archivo, biografías, audiovisuales...



